

2025-2026 IKASTURTEAN DOKTOREAK EZ DIREN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO PROGRAMARAKO DEIALDIA - Laguntza berriak eta luzapenak

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA

Eskaerak aurkezteko epea **2026ko ekainaren 19tik uztailaren 20ra arte da, biak barne.**

Laguntza berrien kasuan, garrantzitsua da deialdiko 21 eta 27. artikulua arretaz irakurtzea.

Berriztapenen kasuan, garrantzitsua da deialdiko 21 eta 35. artikulua arretaz irakurtzea.

Hautagaiak [Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoan](#) dagoen estekaren bidez egin beharko du eskabidea. Eskabide-ereduak deialdiaren III, IV. eta V. eranskinetan agertzen dira. Eskabidea bete ondoren, eskatzaileak bere burua identifikatu beharko du sinadura elektronikoaren bidez. Identifikazio elektronikorako bitarteko bat izan behar duzu.

Eskabidearekin batera aurkeztuko den dokumentazioa bide elektronikoz baino ez da aurkeztuko.

GARRANTZITSUA:

Deialdiaren 27.6 artikulua adierazten duen moduan (35.3 artikulua berriztapenentzat), EHUri atxikitzea aurreikusita duten eskatzaileen kasuan, Zientzia Politikako Zuzendaritzak ofizioz eskatuko du konpromiso hori, hau da, EHUko Ikerketa Errektoreordetzara joko du zuzenean. **Beraz, ezarpen-zentroa EHU duten eskabideek ez dute ezarpen-zentroaren konpromiso idatzia erantsi beharko.**

HARREMANETARAKO KONTAKTUA

Eusko Jaurlaritza

Telefonoa: 012

zientzia.ikerketa@euskadi.eus

EHU

pre-postdoc.dgi@ehu.eus

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

[Ikerketa-ibilbidea. Doktoretza-aurreko Programa - Unibertsitateak. Doktoretza-aurreko programa - Euskadi.eus](#)